

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO HIRI JABETZAKO GANBERA OFIZIALAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN KUDEAKETAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, GANBERAREN LIKIDAZIO PROZESU BARRUAN.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialaren (Ganbera) 2006-2011ko aldian ondasun eta eskubideen kudeaketaren fiskalizazio txostena mamitu du, ganberaren likidazio prozesu barruan. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Lanaren mamia Ganberaren ondarearen gainean egindako kudeaketa berrikusi eta aztertzea izan da, Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 30eko 15/2006 Dekretua, Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialen langileria eta ondarearen araubide eta norakoari buruzkoa, onartu izanaren ondorioz. Dekretu horren indarrez, 2. Xedapen Gehigarriak ganberen gobernu atalak desegin zituen eta horien likidazio prozesuan egitekoak Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak hartu zituen bere gain.

HKEEk 2006ko otsailaren 22ko Agindu bidez Etxebizitza eta Gizarte gaietarako Sailaren Ordezkarri Eskuordea izendatu zuten unetik aurrera abiatuta, Ganberaren ondareari buruzko egitateak kronologikoki jaso ditu; horietatik hainbat ondorio eskuratu ditu, txostenean jaso direnak eta, besteak beste, dio:

-Langileriarri dagokionez, HKEEk dio, besteak beste, Eskuordeak egindako kontratazioak Euskal Funtzio Publikoaren Legea urratuta gauzatu zirela. Berebat, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratu gabe gauzatu ziren.

-Eskuordearen Ebazpen bidez pentsioen gaineko konpromisoa eteteak urteko ekarpenak bertan behera uztea ekarri zuen eta pentsioak ordura arte osatutako funtsa iraungi bitartera arte mugatu zituen; horri dagokionez, HKEEk dio ez dagoela horretarako motibaziorik eta ez datorrela zuzenbidearekin bat, horretarako eskumenik ez zuen organoak ebatzi zuelako.

-2006ko otsailaren 22tik 2010eko abuztuaren 31ra bitarteko aldian egindako gastu eta inbertsioei dagokienez, dio horietako asko ez daitezkeela beharrezkotzat jo 15/2006

Dekretua betetzeko eta honenbestez, Eskuordeak horietarako baimena ematean gainditu egin zituela bere izendapenean jasotako egitekoak, eskumenik gabe gastuak eginez. Gainera, obrak eta altzarien erosketak administrazio publikoei ezargarria zaien kontratazioko arautegian aurreikusitako legezko prozedurei muzin eginda kontratatu ziren.

-*Aukeraturekin “Ander”* filma finantzatzeko izenpetutako hitzarmenari dagokionez, HKEEk ondorioztatu du hitzarmena izenpetzeak 15/2006 Dekretuaren helburuak urratzen dituela eta gainera, Eskuordeak ez zuela helburu horietarako gastuak baimentzeko eskumenik. Bestetik, hitzarmenak diru-laguntza Euskal Herriko Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea bete gabe izapidetzea eragin du.

-EA Eren Administrazio Orokorrak Ganberaren likidazioa kontrolatzeko gauzatutako jarduerari dagokionez, HKEEk uste du aldi horretan zehar gauzatutako azterketa mugatuen emaitzak ikusita, 2008ko maiatzaren 29ko Agindua bete izanaren analisia gauzatu behar zatekeela, inbentarioa onartu eta likidazioa agindu zuena. Eta Etxebizitza eta Gizarte gaietarako Sailak eta bere ordezkariak gauzatutako kudeaketari dagokionez, ez zaiola 15/2006 Dekretuan eta aipatutako Aginduan xedatutako helburuei egokitu baitetsi du.

HKEEk amaitu du esanez Ganberaren likidazioa zorrotasunez egin izanez gero, 2006ko otsailaren 21ean zituen konpromiso guztiei eta likidatzeko beharrezko ziren gastu guztiei aurre eginez, 1.715.274 euro ordaindu beharko ziratekeela eta aldiz, likidazio prozesuan zehar eta 2010eko abuztuaren 31ra arte, 4.374.879 euro gastatu direla; horrek 2.659.605 euroko gehiegizko gastua egin dela esan nahi du.